

/ Nabarmentzekoak

- > 4 milioi euro inguru Getxoko auzo guztietan inbertsioak bultzatzen jarraitzeko (2. or.)
- > 24. Korrikaren etorrera prestatzeko jarduerak (3. or.)
- > Bizkaibiziko hiru geltoki berriak instalatu dira (4. or.)



*Getxora dator "A ze marroia! / El gran marrón" kanpaina (4. or.)

Antzerkia. Ostirala, hilak 13, 20:00etan, Muxikebarrin, "El amor no se reproduce en cautividad", Gorka Mínguez eta Gemma Martínezekin. 12 euro.

Antzerkia. Larunbata, hilak 14, 20:00etan, "Hamlet", Territorio Violetarekin, Muxikebarrin. 12 euro.

A-
GENDA

Herritarrek martxoaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, ahal dela online, Zeugaz plataformaren bidez

2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileen lehen fasea abian da

Udalak abian jarri du 2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileen lehen fasea, martxoaren 22ra arte iraungo duena. Epe horretan, herritarrek modu arinean, errazean eta argian egin ahal izango dituzte beren ekarpenak. *Lagundu Getxo hobetzen* lelopean, Udalak jarraituko du 2017tik kontsolidatuta dagoen prozesua egiten, eta milioi bat euro bideratuko du horretara.

Herritarren Partaidetzarako zinegotzi Gorka Mostajok prozesu horretan parte hartzerantz animatu ditu herritarrak, eta, lehentasunez, Zeugaz online plataformaren bidez parte hartzerantz. "Parte hartzea ahalik eta errazena izatea nahi dugu. Horregatik, Zeugaz plataforma sustatu nahi dugu: 24 orduz zabalik dagoen tresna, joan-etorririk eta itxaronaldirik gabe. Online parte hartzea azkarragoa izateaz gain, prozesu gardena eta trazagarria bermatzeko aukera ematen digu. Zuen mugikorretik edo etxeko ordenagailutik, minutu pare batean erregistratu ditzakezue zuen ideiak, zuen bizilagunek zer proposatzen duten ikusi eta proiektu bakoitzaren egoera denbora errealean jarraitu. Zuen iritzia ezin da kanpoan geratu denbora falta gatik; Udalaren webgunea da zuen leihozuzena Getxoren etorkizuna klik bakar batekin erabakitzeko. Ildo horretan, eta prozesu hori irekitzearekin batera, Partaidetza Zerbitzuak marka berri bat jarri du abian, "Zeugaz" plataformaren erabilera sustatzeko".

Herritarrekiko harremana errazteko, posta elektronikoko helbide bat ere jarri da abian dauden parte-hartze prozesuei buruzko galderak bidaltzeko: partaidetza@getxo.eus

Gainera, prozesuari buruzko zailantzak argitzeko, hiru **hitzaldi**



informatibo programatu dira: astelehenean, hilak 9, 19:00etan, Benta Gunean (Maidagan, 53) eta 11n, 12:30ean, Romo Kultur Etxean (3. solairua), eta 18:30ean, Getxo Elkartearen (Ogoño 1, Areetan).

Nola parte hartu

Getxon erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak aurkeztu ahal izango ditu bere ekar-

penak, baita Udaleko erakundeekin erregistroan inskribatutako erakundeekin, elkarteekin eta abarrek ere.

Proposamen zehatzak aurkeztu ahal izango dira, udal eskumenekoak, eta bideragarriak teknikoki, juridikoki eta ekonomikoki. Prozesu horretan ez da kezarik eta abisurik jasoko (online aur-

kez daitezke udalaren webgunean edo aurrez aurre Herritarren Arretarako Bulegoetan).

Parte hartzeko bideak

Inprimakiak **online** aurkez daitezke, Zeugaz plataformaren bidez (<https://zeugaz.getxo.eus>).

Ekarpena **aurrez aurre** egin nahi izanez gero, formularioa horretarako dauden **postontzietan** utziz egin ahal izango da (Areetako, Algortako eta Bidezabaleko metro geltokietan eta Benta gunean) eta 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalik egongo diren **informazio-moduluetan**: Algortako geltokiko plazan (martxoaren 5ean, 6an eta 7an), Zubiletako parkean (martxoaren 9an), Bidezabaleko Osasun Zentroko plazan (hilaren 10ean eta 11n), Areetako geltokiko plazan (hilaren 12an, 13an eta 14an) eta Fadurako kiroldegiko hallean (hilaren 16an).

Info: <https://labur.eus/9vlqawhy>



Charles Lloyd, Camille Thurman eta "Sketches of Latin Miles" proiektua, Getxo Jazzerako lehen baieztapenak

Getxo Jazzak bere kartelaren lehen izenak ditu dagoeneko, eta 49. edizioa izango da uztailaren 1etik 5era. Uztailaren 2an, osteguna, Camille Thurman saxofoi-jotzaileak, jazz-eszenan agertzen ari den pertsonetako batek, kontzertua emango du Muxikebarrin, Wallace Roney Jr. (tronpeta), Paul Beaudry (baxua) eta David Bryant (pianoa) musikariek lagunduta. Hurrengo egunean, 3an (ostirala), Charles Lloyd

saxofoi jotzaile eta konpositore ospetsuaren hirukotearen txanda izango da, Jason Moran (pianoa) eta Marvin Sewellekin (gitarra) batera. Larunbaterako, uztailak 4, *Sketches of Latin Miles* proiektua baieztatu da, Pepe Rivero pianistak gidatutako zazpi musikari kubatar biltzen dituen ekimena, Miles Davisen obra latin jazzetik lantzeko. Informazio gehiago: <https://labur.eus/gczaulo7>



MARTXOAK 5 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jafar Panahiren "Un simple accidente" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Errezitaldi poetiko-musikala. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "4 poetas como 4 soles". Rapso-dak: Luisi Landa, Carmen Martínez eta Charo Pérez. Pianista: Pilar Morales. Antolatzailea: Gizatiar.

MARTXOAK 6 OSTIRALA

Umorezko bakarriketa. 20:00etan, Muxikebarrin, "Humor negra", Asaari Bibang-ekin. 10 euro.

Zine-kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jim Jarmuschen "Father Sister Brother" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

"Tecnologías a mi favor" tailerrak. "Usos certificados digitales", 18:00etan, Gurarin. Prestakuntza jaso nahi duten migrauentzat. Doan.

MARTXOAK 7 LARUNBATA

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "Romance sonámbulo", Antonio Najarro konpainiarekin. 30 euro.

MARTXOAK 8 IGANDEA

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Orkestra lurterra". Adin guztiak. 2,50 euro.

Haurrentzako antzerkia. 16:30ean eta 18:00etan, "Univers", Engruna Teatre konpainiarekin (gaztelaniaz). 0-2 urte. 10 euro.

MARTXOAK 9 ASTELEHENA

Kluba. 19:00etan, Villamonteko Kultur Etxean, "Freeport" liburua- ren solasaldia, Idoia Carramiñan gidatuta. Egizuk antolatuta. Doan.

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Afganistán: los derechos de las mujeres". Hizlaria: Lida Noori (filologia hispanikoan lizentziaduna Kabulgo unibertsitatean eta Afganistango gobernu-ko langile ohia). Antolatzailea: Sínopel Kultur Elkartea <https://sinopelblog.wordpress.com/>

MARTXOAK 10 ASTEARTEA

Hitzaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "La vida de las mujeres"

después de los 65". Hizlaria: Paula Amieva (EAZn lizentziatua eta Berdintasun teknikaria). Antolatzailea: Gizatiar.

MARTXOAK 11 ASTEAZKENA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Arraingorri" liburua- ren aurkezpena (gaztelaniaz), Jon Kepa Iradi egilearekin.

MARTXOAK 12 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, José Mari Goenaga eta Aitor Arregiren "Maspalomas" (euskaraz, gaztelezko azpitu- luekin). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

MARTXOAK 13 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea. Gaia: "Cuentos tenebrosos".

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "El amor no se reproduce en cautividad", Gorka Mínguez eta Gemma Martínezekin. 12 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Radu Juderen "Kontinental 25" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

"Derechos a los que tengo Derecho" tailerrak. "Derechos en el trabajo de hogar y cuidados, novedades 2026", 18:00etan, Gurarin. Prestakuntza jaso nahi duten migrauentzat. Doan.

MARTXOAK 14 LARUNBATA

Storytime for babies. Around the world. 11:00etan, Romo Kultur Etxea, haurtoentzako ipuin kontaketa (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Dantza plaza. 19:30ean, San Nikolas plazan, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hamlet" (gaztelaniaz), Territorio Violetarekin. 12 euro.

MARTXOAK 15 IGANDEA

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Olivia y el terremoto invisible". Adin guztiak. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bill Kwai eta museoaren lapurreta". Adin guztiak. 2,50 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Bendito silencio", Aztiak konpainiarekin. Gonbidapena behar da (Romo Kultur Etxean edo Muxikebarrin eskatu).

- **Algorta.** Batxilergoko bigarren mailako matematikako irakasle baten bila nabil ikasle batentzat. Tel: 688 876 540.



Norberaren iragarkiari direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia- ren egiazko- tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komuni- kazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bi- zitzari lotutako albisteak eta informa- zioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Beste jarduera batzuen artean daude Algortako Ludoteka eta Getxo Txukunen jarduketak Sarrikobason

4 milioi euro inguru Getxoko auzo guztietan inbertsioak bultzatzen jarraitzeko

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bildu, PP eta Elkarrekin Podemosen abstentzioarekin, Udalak 4 milioi euro inguruko kreditu gehigarria onartu zuen osoko bilkuraren azken saioan, udal gerakina- ren kontura finantzatu- den diru-kopurua. Kreditu gehigarri horrek baliabi- de berriak gehitzen dizkie udalerriko hainbat auzotan espazio publikoa hobetzea- rekin, oinarriko azpiegi- turak modernizatzearekin, energia-eraginkortasunare- kin eta udal-ekipamenduak egokitzearrekin lotutako proiektuei.

Inbertsioen artean, honako jarduera hauek daude:

- Argiteria sareko energia-eraginkortasuna, Romo eta Sarrikobasoko saneamen- du-sarea, irisgarritasuna eta Ereagako igogailuaren segurtasuna eta funtziona- mendua hobetzea
- Hainbat eremutan asfaltatze lanak egitea
- Getxo Txukun partaidetza- prozesuko jarduketak Sarri- kobason
- Zoladura berritzea hainbat gunetan
- Hilerriko 5. Pabilioia berre- raikitzea
- Ereagatik Portu Zaharrera- ko ezpondak egonkortze-

- ko lanak
- Algortako *Basoa* ludoteka berriaren barrualdea egoki- tzeko jarduketak, eta
- San Nikolaseko aparkale- kuaren inguruan komun pu- blikoak eta oinezkoentzako sarbideak hobetzeko eta ego- kitzeko lanak, besteak beste.

Honako bi kreditu gehigarri hauek ere onartu zituzten:

- 1, 3 milioi euro, udaleko langileen 2025. eta 2026. urte- tako ordainsari-igoerak finantzatzeko, eta
- 95.216 euro merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko jardueretarako laguntzak fi- nantzatzeko

Udalbatzako beste gai batzuk

Otsaileko udalbatzan, parke eta lorategi eremu publikoak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua luzatzea onartu zen, 2,8 milioi euro baino zertxobait gehia- gogatik, urtebeterako edo indarrean dagoen lizitazioa amaitzen duen kontratua sinatzen den arte.

Halaber, 4.500 euroko zigorrak ezarri zaizkio La Terraza udal-erakinaren ustiapen- zerbitzuaz arduratzen den aldi baterako enpresa-elkar- teari, emakida-kontratuan bederatzi hileko kanona or- daintzeko betebeharra ez betetzeagatik.

Bai EH Bilduk eta bai Elkarre-

kin Podemosek eskatu dute, behin kontratua bertan behe- ra utzita, zerbitzua denbora gehiegi itxita ez egotea her- ritarrei kalte ez egiteko, eta EH Bilduren ustez, gainera, zigorrak irigarriak dira, kon- tuan hartuta pilotutako zorra 600.000 eurotik gorakoa dela. Udal Gobernuak adierazi du hori dela egungo kontratua suntsiarazteko espedientea arrazoitu nahi dela, zehape- netarako ezarritako muga batzuk errespetatu behar direla, eta denbora behar dela emaki- da berrirako pleguak aztertze- ko eta hobetzeko, gauza bera berriro gerta ez dadin.

Era berean, 2025eko Udalaren Aurrekontu Orokorren liki-

dazioaren eta Bozeramaileen Batzordeak indarkeria ma- txista gaitzesteari buruz onar- tutako Adierazpen Institutio- nalaren berri ere eman zuten.

Moziok

Mozioren atalean, oniritzia eman zitzaion Elkarrekin Po- demosetik abiatu zen mozio bati. Talde horrek PSE-EEren zuzenketa transakzional bat onartu zuen, Larrañazubi ikastetxe publikoaren itxiera gaitzesten dutela adierazteko, hezkuntza- eta komunitate- arloan dakarren eraginaga- tik; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzeko, bestak beste, eskolaratzeko hasierako eskariari buruzko datuak, familiek eskatutako ikastetxearen lehen aukera barne, azken ikasturteetako behin betiko matrikulazio- da- tuak eta Larrañazubi eta San Ignacio bateratzeko proposa- mena justifikatzeko aplikatu- tako irizpide teknikoak. EAJ/ PNVk aurka bozkatu zuen, izan ere, martxoaren 11n, al- katetzaren ekimenez, bilera bat egingo baita Eusko Jaurla- ritzarekin eta ikastetxeko gu- raso-elkartearrekin (AMPA), gai horri heltzeko.



Hiru zinegotzi berrien karguez jabetzea

Udalaren azken osoko bilkuran, EAJ/PNVk Udalean dituen hiru zinegotzi berriak karguaz jabetu ziren: Aingeru Torrontegi Ayo, Ogasun eta Diruzaintza Saila bere gain hartzen duena; Elisabete Basañez Pérez, Sustapen Ekonomiko eta Turistikoa, Bide Publi- kiko Ekitaldiak, Punta Begoña eta Herritarrentzako Arreta Saila zuzenduko dituen; eta Carlos Sergio Achotegui, Ingurumen Uni- tatea zuzenduko duena. San Nikolas 11ko eraikinaren eraispene- ren kasuagatik ikertu gisa deitu zituztela jakin ondoren joan den hilean kargua utzi zuten Ignacio Uriarte, Irantzu Uriarte eta Iñigo Urkitza ordezkatu dituzte.

Jendearen eskarien eta gal- deren txandan, hainbat per- tsonak hartu zuten parte, eta Larrañazubi Ikastetxearen ai- patutako itxieraren inguruko kezka azaldu zituzten, bai eta lorezaintzari (zuhaitzak, inausketa, garbiketa...) eta Salsiduko arrapalei buruz- koak ere, besteak beste.



“Romance sonámbulo”, dantza espainiarra, poesia eta musika

Martxoaren 7an, larunbata, Antonio Najarroren dantza konpainiak *Romance sonámbulo* ikuskizuna aurkeztuko du Muxikebarrin. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 30 euro balio du.

Federico García Lorcaren gaueko poemetan inspiratutako muntaia da, Antonio Najarroren zuzendaritzarekin eta koreografiarekin.

Bidaia koreografiko bat erakusten du, non dantza espainiarrak, poesiak eta musikak intentsitate handiz hitz egiten duten.

Tradizioak eta abangoardiak bat egiten duten proposamen paregabea da, publikoa Granadako gauaren eta bere sekretuen sorginkerian murgilduz, egungo dantzaren sortzaile handienetako baten eskutik.

“Humor negra”, Asaari Bibang komikoaren bakarrizketa



Asaari Bibang komikoa izango da ostiral honetan, martxoak 6, Muxikebarrin, *Humor negra* ikuskizuna aurkezteko. Emakumea, beltza eta migratzailea izanik, bizitza nola den erakusten duen bakarrizketa da. Estereotipoez, itxaropen zentzugabeaz, “beltz bakarraz”, salbatzaile zuriaz, arraza arteko bikoteez eta entzun aurretik hipersexualizatzen duen begirada horretaz hitz egiten du. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Korrikaren etorrera prestatzeko jarduerak

Euskara gara lelopean AEKk antolatuta, martxoaren 26an udalerria zeharkatuko duen 24. Korrikaren etorrera berotzeko hainbat jarduerak antolatu dituzte batzordeetako elkarte eta eragile ugariak. Horiek martxoaren 6an hasiko dira, Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarrearen egoitzan 18:00etan izango den arropa eta petoen salmentarekin. 19:00etan, aurkezpen ekitaldia izango da, Zasi eskolaren dantza eta Romoko kantarien emanaldiarekin batera, eta ordu bete geroago poteo musikatua Kresaltxu taldearekin. Martxoaren 14an, 20:00etatik aurrera, poteo musikatua izango da berriro, baina Orkestra elektro txarangarekin.

Bestalde, Algortan, martxoaren 13an izango da aurkezpena, 17:30ean, bote-luze tailerrarekin (izen ematea: 688746776), bertsola-



riekin Bihotz Alai plazan eta Martia taldearen kontzertuarekin Azebarri kultur elkartearen. Horiekin batera, Korrika abestien lehiaketa parte hartzaile baten bidez historiako abestien inguruan ezagutzen dutena erakusteko aukera izango dute herritarrek. Saioak Oier Garamendiren eskutik martxoaren 10ean, 10:00etan, Romo institutuan eta martxoaren 12an, 9:30ean, Azebarri Kultur Elkartearen, izango dira, eta Paula Brezorekin 17:00etan Romo Kultur Etxean. Sarrera librekoa izango da.

“Eman minutu 1 KULTURA” lehiaketaren sari banaketa

Martxoaren 13an, ostirala, 19:00etan, Muxikebarrin *Eman minutu 1 KULTURA* Ikus-entzuzko Piezen Nazioarteko XVI. Lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia izango da, UN Etxea GKEk antolatuta, Udalarekin lanikidetzan.

Edizio honetan, eskubide kulturalak defendatzen, sustatzen, aldarrikatzen, zabaltzen eta/edo kontzientziatzen dituzten bideorik onenak sarituko dituzte. Sarrera doakoa izango da, baina alde aurretik izena eman beharko da: <https://labur.eus/x1paq56p>.

“Univers”, haurtxoentzako antzerkia

Engruna Teatreraren konpainia Muxikebarrira iritsiko da 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat diseinatutako *Univers* antzerki ikuskizunarekin. Igandean, hilak 8, 16:30ean eta 18:00etan, eszenatoki-

ra igoko da, arte eszenikoen lehen urratsak laguntzeko eta harridurarako leiho bat irekitzeko sortutako bidaia poetiko eta lasai bat aurkezttera. Sarrera bakoitza (10 euro) haurtxo batentzat eta heldu batentzat da.

Saharari buruzko hitzaldia

Errepublika Arabiar Demokratikoaren 50. urteurrena dela eta, martxoaren 12an, ostegunean, 19:00etan Benta gunean, Mendebaldeko Sahara, 50 urtez ahaztuta izenburuko hitzaldia izango da, Getxoko ATFAL Sahararen aldeko elkarteak antolatuta, Udalarekin elkarlanean. Juan Soroeta eta Mujtar Leboihi izango dira hizlariak eta solasaldiaren ondoren publikoarekin hitz egiteko aukera izango da.

Joste Solidarioaren beste erakusketa bat

Martxoaren 9tik 13ra, +60 Dinamizazio Zerbitzuko Joste Solidarioaren tailerrean egindako haurrentzako arropen (txaketak, prakak, soinekoak, txanoak, mendigoizaleak, bufandak...) erakusketa eta salmenta izango da Algortako Urgull Zentroan. Ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era izango da.



Frantziako ikasleei harrera egin diete Udaletxean

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak harrera egin zion joan den asteazkenean, Udaletxean, egun hauetan Julio Caro Baroja institutuarekin hezkuntza-elkartrukea egiten ari den Frantziako La Réuniongo Saint Pauleko Lycée Louis Payen zentroko ikasle talde bati. Batxilergoko 11 neska-mutilek hartu dute parte ekitaldi horretan, Getxoko ikaskideekin eta bi ikastetxeetako irakasleekin batera. “*Bi metropolien politika koloniala eta egungo kolonialismoa*” azterten dituen Erasmus programa batean parte hartzen dute. Gainera, Getxoko baliabide turistikoak ezagutuko dituzte eta Gernika, Gaztelugatxe eta Bilbo bisitatu dituzte.



Areetan egongo da 7an, larunbatean, eta Algortan apirilaren 17an

Getxora dator "A ze marroia! / El gran marrón" kanpaina

Hondakin organikoaren bereizketa sustatzeko Aldundiaren *A ze marroia! / El gran marrón* kanpainaren karabana ibiltariak Getxo bisitatuko du bi egunez: larunbat honetan, martxoak 7, 10:30etik 14:30era, Areetako Geltokiko plazan egongo da, eta apirilaren 17an, ostirala, 11:00etatik 18:00etara, Algortako Geltokiko plazan.

Eremu horietan, informazio-gune bat jarriko du herritarrek lehiaketetan eta jardueretan parte hartu ahal izateko, hondakin organiko behar bezala bereizteari eta kudeatzeari buruz dituzten eza-gutzak probatzeko. Era berean, zenbait udalek, hala nola Getxo-koak, dagoeneko ezarri dituzten edukiontzi marroia identifikatzeko eta ixteko sistemei buruzko informazio praktikoa emango da. Kanpainak arreta berezia eskain-

tzen die gazteei, ikastetxetara bisitak eginez, eta horietan jarduerak dinamikoak egingo dira, hala nola errealitate birtualean murgiltzeko esperientziak eta prestakuntza lehiaketak.

Ostalaritzaren sektoreak (HORECA), halaber, sentsibilizazio-ekintza espezifikokoak ditu, eta establezimenduei nahiz bezeroei zuzentzen zaien dibulgazio-materiala banatzen da.

Ekimenaren osagarri dira sare sozialetako edukiak eta ekintzak, bai eta kontsultarako tresna digital erraz bat ere, edukiontzi marroiaren erabilerari buruzko zailtasunak argitzeko.

Udalak ekimen honetan aktiboki parte hartzeko deia egiten die herritarrei.



Jarduera berria Eskola Bidean

Eskola Bidearen proiektuan parte hartzen duten ikasleek aukera izango dute martxoan jarduera berezi batekin bat egiteko: mezu sekretu bat deszifratu beharko dute ikasleek, proiektuarekin kolaboratzen duten udalerriko saltokietako erakuslehoetan ikusgai egongo diren eranskailuen bidez. Ingurumen Unitateak antolatuta, jarduera berriaren helburua da

proiektuan diseinatu eta ezarritako ibilbideak indartzen jarraitzea, Lehen Hezkuntzako haurren segurtasuna eta autonomia hobetzea eta establezimendu laguntzaileen ikusgarritasuna handitzea. Saltoki horiek beren erakuslehoetan identifikazio eranskailuak dituzte eta horiei esker, ikasleek saltokiak erreferentziatzeko eta laguntza emateko gune gisa onar ditzakete. Bereizgarri horiei esker, ikasleek argi eta garbi ikus dezakete Eskola Bidearen ibilbidea, eta saltoki horiek erreferentziatzeko eta laguntza emateko gune gisa onar ditzakete. Saltokien lankidetzak familien konfiantza indartzen du.

Mezu sekretua osatzeko, ikasleek hainbat saltoki laguntzaile aurkitu beharko dituzte, eta, mezu hori ebatzi ondoren, Ingurumen Areatarekin partekatuko beharko dute. Mezua behar bezala jakinarazten duten ikasleen artean zozketa bat egingo da. Zozketa horretan, Eskola Bidearen diploma bat eskuratu ahal izango dute, eta esperientzia berezi batez gozatzeko aukera ere izango dute, familian edo lagunekin Ingurumen Aretoan bertan partekatuzko.

Bizkaia
A ZE MARROIA! / EL GRAN MARRÓN
Zenbat dakizu birziklatzeari buruz?
¿Cuánto sabes sobre reciclaje?
LAS ARENAS
Areetako Geltokiko plaza
Plaza de la Estación de Las Arenas
Martxoak **13** Marzo | **10:30-14:30**
Ezagutu hondakin organikoaren birziklatze selektiboko sekzioa. (Conoce todos los secretos del reciclado selectivo de residuos orgánicos)
bizkaia.eus/azemarroia



Bizkaibiziko hiru geltoki berriak instalatu dira

Getxok Bizkaibizi bizikletak mailegatzeko zerbitzu publikoko 20 estazio ditu dagoeneko, udalerririk osoan zehar banatuta. Azken hirurak pasa den astean instalatu zituzten Sarrikobaso (goiko irudian), Iparbide eta Maidagan kaleetan; izan ere, herritarren erabilera-erakaria handia duten eremuak baitira. Geltoki berri hauek aukera emango dute dagoen sarea arintzeko, lurralde estaldura hobetzeko eta barne mugikortasuna errazteko, mugikortasun iraunkor, irisgarri eta konektatu baten aldeko apustua indartzeaz gain.



Bisita Casimira Llaguno Ansolari bere 100 urtebetetzean

Amaia Aguirre Getxoko alkateak Casimira Llaguno Ansolari auzokidea bisitatu zuen asteazkenean, martxoak 4, 100 urte bete zituela eta. Ehun urteko emakumearekin eta bere familiako kide batzuekin izan zen Aguirre, egun bizi den As-trabuduako egoitzan. Kantabrian jaioa, 40 urtez izan da udalerrian auzokidea. Alaba baten ama da eta bi biloba ditu emakumeak eta, ohi bezala, Aixerroren orroigarria eta lore sorta bat jaso zituen agintarien eskuetatik.

Emakumezkoak belaren protagonistak Abrako uretan

Hainbat autonomia erkidego-tako emakumezkoen tripulazio onenetako batzuk itzuliko dira asteburu honetan, martxoaren 7an (larunbata) eta 8an (igandea), Abrako uretara, belako Iberdrola Ligaren barruan dagoen VII. EKP Women's Cup txapelketa jokatuzko, J80 klasean. Areetako Itsas Klubak (RCMA-RSC) antolatuta, estropada erakargarri horrek tripulazio femeninoen nabigazioa eta haien lidergoa sustatzen ditu. Silvia Marcéren *Surne* ontziaz eta Carmen Galdós RCMA-RSC-ko presidentea patroi duen beste ontzi batez gain, Donostia, Altea, El Balís, Eivissa, Kanaria Handia, Sevilla, Puerto Pollença eta El Masnouko klub nautikoetako



ordezkariak parte hartuko dute lehiaketan.

Bestalde, Marítimoko II. Sari Soziala otsailaren azken igandean hasi zen, hori ere J80 motako ontziekin. Eta oraindik bi jardunaldi puntuagarri gehiago falta zaizkio, hile honen 14an eta 28an jokatuko direnak, bela-egutegi trinko eta zorrotza osatuz.